

E Elkarrizketa

MIREN GUTIERREZ > Kazetaria



MAITANE ALDANONDO

«Ez nau ezerk beldurtzen, edonor elkarrizketatzeko gai naiz»

Komunikabideak » Amaratarra zazpi urtez IPS albiste agentziako buru izan bada ere, emakumeek hedabideetan botere gutxiag dutela uste du.

MAITANE ALDANONDO

Nazioarteko albiste agentzia batean zuen editore buru postua utzi, eta jaioterria itzultzeko ordua zela erabaki zuen orain hilabete batzuk Miren Gutierrezek (Amara Berri, 1966). Munduko hainbat txokotako gertaeren berri ematen bi hamarkada igaro ondoren, ahal duen neurrian, hiria berriro ezagutzen ari da. **Zergatik aukeratu zenuen kazetaritza?** Haurra nintzenetik idatzi nahi izan dut. Filologia ikasi nuen eta kazetaritza errealitatea kontatzeko aukera ona izan zitekeela jabetu nintzen. Ikasle nintzela, hainbat idazleri egindako elkarrizketak argitaratu zizkidaten, baina ezin izan nion horri jarraipena eman. Argi nuen kazetari izan nahi nuela, baina ez nuen kazetaritza ikasi.

24 urterekin Hong Kongera joan, eta EFE agentziako korrespondente izan zinen zazpi urtez. Zer ekarpen egin zizun bizipen horiek?

Zorte handia izan nuen. Senarrarekin Hong Kongera joan nintzen eta bi astetan lana aurkitu nuen. Kazetari bilakatzeko eman zidan Hong Kongek, eta albiste agentzian lan egiteak, ondo, zuzen, azkar eta beharrezko informazioarekin idazteko diziplina. Egunean 12 albiste idazte-

ra iritsi naiz! Denetariko gaiei buruz idatzi beharrek, aldaberatasunaz gain, segurtasuna eman zidan. Ez nau ezerk beldurtzen, edonor elkarrizketatzeko gai naiz. Bestalde, oso ezezaguna zitzaidan munduko zati bat ezagutu, eta oso gustura sentitu nintzen.

Nola eragin dio zure ibilbideari?

Asko markatu ninduen, mundua ulertzen lagundu dit. Panamara joan nintzenean, nire eskarmentuarengatik, *La Prensa* egunkariaren ekonomia sailean lana eman zidaten. Hong Kongen idazten nuen gai, iturri eta pertsona bertsuez ari nintzela ohartu nintzen. Asian lortutako nazioarteko ikuspegiak baldintzatu zizkidaten, baina ezin izan nion horri jarraipena eman. Argi nuen kazetari izan nahi nuela, baina ez nuen kazetaritza ikasi.

Egindako lanetatik zein nahiago duzu?

Liluragarriena Panamakoan izan zen, ikerkuntza kazetari bilakatu bainintzen. Ustelkeria, diru zuritzea... ikeritua nuen eta gure erreportajeek eragin handia izan zuten herrialdean eta handik kanpo, ondorio legalak eraginez. Benetako kazetari egin ninduen eta horidan nire langustukoena. Hala ere, berriro egingo nukeen

ez dakit; intentsitate handikoa da eta denbora guztia hartzen dizu. Orain gutxi eskaintza egin zidaten, baina areriotasun, zailtasun eta baita arriskuz ere betetako mundu horretan berriro sartzeko nekatuta nago.

Marc Harris diru zuritzearekin buruz Panaman egindako ikerketan oinarrituta, *La ciudad de las cigarras* liburua idatzi zenuen. Zergatik aukeratu zenuen gertakari hori?

Bakoitzak gure bizipenak, hezkuntza, kultura... ematen dizkiogu kazetaritari

Lagun batek eman zidan ideia, gertakariaren berri eman nionean «hori ezinezkoa da, eleberria da» esan zidan. Ideia horri jarraituz, pentsatzen, oharrak hartzen eta idazten hasi nintzen.

Bestelibururik idazteko asmorikba al duzu?

Trilogia bat egin nahi dut Panamari buruz, hiru kasu interesgarri identifikatu bainintzen. Lehen eleberri hori Karibeko diru zuritzearekin garrantzitsuenean oinarritzen da. Beste bat, Panaman espioitzaren buru zen Samantha Smithi buruzkoa da. Txinatar etorkin ilegalei buruzko kasu batean iturri oso garrantzitsua izan zen. Negozioaren burua, Panamako presidentea zen, bere kanpainaren diru laguntzak pasaporteekin ordaintzen zituen! Azkena, Mobil pe-

trolio enpresari buruzkoa. Honek gobernu erosi zuen kanalean kontzesioa izateko.

Abendua arte, zazpi urtez, International Press Service albiste agentziako editore burua izan zara. Nola iritsi zinen Erromara?

Kasualitatea izan zen. Panama utzita, New Yorken nenbilen hainbat argitalpenentzat kazetari independente gisa lanean. Lagun batek nire curriculum bidali zien, hautaketa egin zuten eta aukeratu ninduten. Egiten duten kazetaritza mota oso interesgarria iruditu zitzaidan. Giza eskubideak, globalizazioa, ingurugiroa, gizarte... lantzen dituzte eta lan egiteko ildoek bat egiten dute, nire ustez, kazetaritza independenteak izan behar duenarekin: konprometitu eta presio politikoa nahiz ekonomikoetatik aldentzea.

Zergatik erabaki zenuen uztea?

Denbora asko hartzen duen lana da, IPSk 330 tokitan dauden 400 kazetaritik gora ditu. Oso lotua da. Zazpi urtetan, eman beharreko guztia emana nuela pentsatu nuen, eta Donostiara itzultzeko une ona zela. Arrazoi pertsonalengatik ere, etxera etorri nahi nuen.

Emakumeek hedabideetan aginte postua izatea ez da ohikoa...

Gai honi buruz idatzi izan dut oso interesgarria iruditzen zaidalako, eta nahiko ezkorra naiz. Zergatik gara komunikabideetan aipatzen diren iturrien %20 bakarrik? Laurdena garelako agintari edota jabeak. Komunikabideak goitik behera har-

» DI-DA BATEAN

■ **Eman nahiko zenukeen albisteak.** Eman nahi nituen guztiak eman ahal izan ditut.

■ **Eman nahiko ez zenukeena.**

Albiste txar guztiak. Antzerki munduaz idatzi nahiko nuke, ezer txarrik ez dagoela esan nahiko bailuke.

■ **Zer bota duzu faltan hiritik?** Sendia, janaria, txokoak... dena.

■ **Nola ospatu duzu San Sebastian eguna, kanpoan zintzenean.** Gogoratu, nagusiki. Testuinguru eta ordua hain izan dira bestelakoak batzuetan...

■ **Hiriko paisaia edo donostiarrak**

Biak. Paisaiak herritarrak moldatu dituela esango nuke.

■ **Izandako tokietatik zer ekarriko zenuke hirira?**

Ikuspegi globalagoa. Hiri sofistikatua da, baina kosmopolitagoa izatea nahiagoko nuke.

■ **Toki horietan hiria ezaguna al da?**

Iraganean indarkeriak ezagun egin du, baina gero eta gehiago gauza onengatik ezagutzen dute. Lagun italiar baten jate txer gustukoena La chuchara de San Telmo da.

tzen dituen joera da; eta garrantzia handia du norke zer idatzi, nola idatzi eta nor elkarrizketatu erabakitzean. Iraganeko ikuspuntua iruditzen zait. Urte gehiago bizi eta hobe heziak bagara, -gehiengo gara unibertsitatean- botere gehiago izan beharko genuke. Ekonomia alorrean ez dugu, eta politikan, gehixeago, baina ezta ere.

Aginte postuan emakume bat egozteak aldatzen al du hori?

Ikuspegi femininoa dagoenik ez dut uste. Egun, bizitza, errealitatea eta norbanakoak oso bestelakoak dira eta gero eta askatasun handiago dago norbera dena izateko. Bakoitzak gure bizipenak, hezkuntza, kultura... ematen dizkiogu kazetaritza.

Nola ikusten dituzue hedabideak?

Arrazoi ekonomikoengatik oso politizatuta daudela uste dut; enpresari mesede egiteko gauza batzuk ikeritzen eta beste batzuk ez. Gure burua suntsitzen ari gara, kazetaritza kas-kar honekin. Orain 20 urte hasi nintzeneko mundua, jendeak automatikoki egunkaria erosten zuena, ez da existitzen. Ez badugu ikertuko ezta egia esango... ez bagara justu, zintzo ezta independente izango... agintea kritikatu eta aztertuko dugu laugarren botere izango ez bagara... zertarako gaude? Soberan gaude. Hausnarketan hori ez dela egiten uste dut. Beharrezkoak garelako erakutsi behar dugu, boterea garelako eta erabil dezakegula.

Zer lanetan zabilzta orain?

Mar Viva fundazioaren komunikazio zuzendaria naiz. Oso bestelako lana da, baina ingurugiroa eta itsasoa-aren babesa oso interesgarria iruditzen zaizkit. Fundazioak, besteak beste, dokumentalak egiten ditu, eta horietako bat Aquariumera ekarriko dugu Aste Nagusian.